



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

www.alava.net

## ***PUNTU BERDE MUGIKORREAN HONDAKINAK ONARTZEKO PROTOKOLOA***

### **1. Organo kudeatzailea:**

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzua.

### **2. Eremua eta xedea:**

Protokolo honen xedea da arautzea nola jaso eta bildu behar diren etxe partikularretan, denda txikietan, bulegoetan eta halakoetan sortzen diren hiri hondakinak, hain zuzen, hiri hondakinak jasotzeko ohiko edukiontzietan utzi ezin direnak.

### **3. Azalpena:**

Hondakin bereziak biltzeko zerbitzu mugikorra. Edukiontziak dituen ibilgailu bat jarriko da, eta etxe partikularretan eta denda zein enpresa txikietan sor daitezkeen hondakin bereziak bildu eta sailkatuko dira, baldin eta ez badira beraien jardueraren ondorioz sortzen diren hondakin nagusiak (industria eta lantegi txikien kasuan). Esate baterako, ez dira onartuko autoak konpontzeko tailerretatik ekarritako iragazkiak edo motor olio erabilia, ezta pintore enpresek ekarritako pintura poteak edo mekanizazio tailerretako taladrinak ere. Hondakinak sortu dituen arduratuko da horiek guztiak kudeatzeaz.

Zerbitzuak aurrez ezarritako ibilbideen bidez funtzionatuko du. Gutxienez 7 eguneko aurrerapenarekin informazio panel bat jarriko da, zeinaren bidez jakinaraziko den ibilgailua zein egun eta ordutan iritsiko den leku bakoitzera.

### **4. Zerbitzuaren helburuak:**

- Bereiztea hiri hondakinetako materialak, batez ere arriskutsuak direnak, izan ere, horiek gainerako hondakinekin batera ezabatzea arriskutsua da eta, gainera, ingurumena kutsatzen dute.
- Ekiditea zaborra biltzeko zerbitzu arrunten bidez ezabatu ezin diren hondakinak kontrolik gabe botatzea.
- Aprobetxatzea balorizatu, birziklatu eta berrerabili daitezkeen hiri hondakinetako materialak. Hartara, energia eta lehengaiak aurrezteko lortuko da, baita ezabatu beharreko hondakinen bolumena murriztea ere.
- Irtenbiderik onena ematea hondakin mota bakoitzari. Horren xedea da materialen balorizazio handiena eta kudeaketa osoaren kostu txikiena lortzea.

---

**Ingurumen eta Hirigintza Saila**

**Sailkatutako Jardueren eta  
Hondakinen Atala**

Plaza Provincia, 5  
01001 VITORIA-GASTEIZ

**Departamento  
de Medio Ambiente y Urbanismo**

**Sección de Actividades Clasificadas  
y Residuos**

Tel 945 18 18 18  
Fax 945 18 19 15  
Email: mambiente@alava.net



## 5. Zerbitzuaren maiztasuna.

Gaur egun, zerbitzuak probintzia osoan egiten ditu ibilbideak, salbu eta hondakin bereziak ezabatzeko instalazio finko espezifikoak (Garbiguneak) dituzten herrietan. Geldialdien iraupena herriguneen araberakoa da.

Ibilbideen urteko egutegia Arabako Foru Aldundiaren web orrian argitaratuko da urtero, urtarrilean. Dena den, halabeharrak eta ezustekoak egonez gero, egutegia aldatu egin daiteke.

## 6. Puntu berde mugikorraren erabiltzaileak:

Zerbitzu honen bidez, jatorri hau duten hondakinak kudeatu nahi dira:

- Etxeak
- ETEak.
- Denda txikiak eta zerbitzuak.
- Ostalaritza.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak.

## 7. Onartzen diren hondakinak:

### Etxeko hondakin arriskutsuak:

Oro har, jarraian adierazitako hondakin motak onartuko dira, betiere gehieneko kantitateak errespetatzen badira. Beste mota bateko hondakinak ezabatu behar badira edo gehieneko kantitateak gainditzen badira, eskaera berezia aurkeztu beharko da, 10. artikuluko oharrei jarraituz.

Hondakin mota	Onartzen/Jasotzen den gehieneko kantitatea
Bateriak (nikel-kadmiozkoak, berunezkoak, ioi-litiozkoak, etab.)	4 unitate
Botoi-pilak, alkalinoak eta grafitozkoak, tamaina edozein dela ere	M.G.
Fluoreszenteak eta bonbillak	10 unitate
Motor olio erabilia	25 litro
Landare olioak	15 litro
Etxetresna elektriko txikiak eta ertainak (mikrouhin labeak, telebistak, irabiagailuak, etab.)	5 unitate
Etxeko produktu arriskutsuen ontziak (garbiketa produktuak, etab.)	10 unitate
Etxeko hondakin arriskutsuak (garbiketa produktuak, etab.)	15 litro



Aerosolen ontzi hutsak	10 unitate
Aerosolak, produktuz beteak	5 unitate
Erradiografiak	M.G.
Tinta kartutxoak eta inprimatze tonerrak	M.G.
Informatikako hondakinak (ordenagailuak, teklatuak...)	4 unitate
Pinturak, bernizak, disolbatzaileak (halogenatuak eta ez halogenatuak), etab.	15 kg
Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen ontziak	5 unitate
Produktu fitosanitarioak, iraungita daudenak edo erabiltzen ez direnak	5 litro

#### **Etxeko hondakin bereziak, arriskutsuak ez direnak:**

<b>Hondakin mota</b>	<b>Onartzen/Jasotzen den gehienezko kantitatea</b>
Pneumatikoak (1,20 m-ko diametrotik beherakoak)	4 unitate
CDak eta DVDak	M.G.
Zurezko eta metalezko tresna txikiak	2 unitate
Jostailuak	6 unitate
Erabilitako arropa, ehunak eta oinetakoak	M.G.

Oharra: M.G.: mugarik gabe.

#### **8. Onartzen ez diren hondakinak:**

- Onartzen diren hondakinen zerrendetan agertzen ez direnak.
- Enpresa txikietako hondakinak, enpresaren ohiko jarduera ekonomikoarekin zuzenean zerikusia dutenak.
- Hondakin erradioaktiboak.
- Hondakin biosanitarioak.
- Animalia hilak.
- Egoera txarrean dauden ontzietan entregatzen diren hondakin arriskutsuak.
- Material leherkorak.
- Bereizi gabeko hondakinak.
- Identifikatu gabeko hondakinak.
- Puntu berde mugikorrean entregatzean, argi eta garbi pertsonak, ondasun materialak edo ingurumena arriskuan jar ditzaketen hondakinak, edo puntua antolatzeke arazo larriak sor ditzaketenak.



## **9. Lurrean utzitako hondakinak.**

Lurrean, puntu berde mugikorra jartzen den lekuaren parean, hondakinak uzteak hainbat arazo sortu ahal ditu ingurumenean eta osasunean, besteak beste, isurketak eta lixibiatuak.

Ingurumen eta Hirigintza Saila ez da izango herritarren jardunbide ezegokien ondorioz sortzen diren arazoan erantzule. Gainera, erabiltzaileei horrelako jokaerak saihestea eskatzen diegu, eta kontu handiz ibiltzea, batez ere, lixibiatuak edo isurketak eragin ditzaketen hondakinekin.

## **10. Baimen bereziak:**

Ondoko kasuetan baimen berezia behar da:

- Onartzen diren hondakinen zerrendan agertzen ez diren hondakinak ezabatu behar badira (8. artikulua).
- Onartzen den gehienezko hondakin kantitatea gainditzen bada.
- Protokolo honetan jasota ez dagoen aparteko beste edozein egoera ematen bada.
- Baimen horrek Arabako Foru Aldundiak ematen duen egunetik uneko urtearen abenduaren 31ra arteko balioa izango du. Urtea amaitu ondoren, oraindik baimen berezia behar izateko arrazoiak badaude, interesdunak beste eskaera bat egin beharko du.

Horrelakoetan, eskaera (1. eranskina: baimen bereziaren eredia) bidali beharko da Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailera (fax zenbakia: 945181915; posta elektronikoko helbidea: [mambiente@alava.net](mailto:mambiente@alava.net)) edo Arabako Foru Aldundiko Sailkatutako Jardueren eta Hondakinen Atalarekin harremanetan jarri (telefonoa: 945181818). Eskaeran argi adieraziko dira honakoak: hondakin mota, jatorria eta kantitatea.



I. ERANSKINA / ANEXO I

BAIMEN BEREZIAREN eredia  
Modelo de AUTORIZACIÓN ESPECIAL

**Eskatzaileak bete beharreko datuak** ■ Datos a rellenar por el solicitante

**Erabiltzailearen izen-abizenak, edo sozietatearen izena**

Nombre y apellidos del usuario o Razón social de la empresa

**Helbidea** ■ Dirección

**Harremanetarako pertsonaren izen-abizenak** ■ Nombre y apellidos de la persona de contacto

**Harremanetarako telefono zenbakia** ■ Número de teléfono de contacto

**Posta elektronikoko helbidea** ■ Correo electrónico

**Enpresaren jarduera nagusia** ■ Actividad principal de la empresa

**Ezabatu nahi diren hondakin motak // Hondakinaren jatorria**

Tipos de residuos que se deseen retirar // Origen de residuo

**Hondakin kantitatea** ■ Cantidad de residuos

**Beste egoera batzuk** ■ Otras circunstancias

**Oharrak** ■ Observaciones